KIROLA: PIRINIOETAKO ESKI PISTAK ELUR HANDIAREKIN DAUDE /10

Goienkaria

EGUBAKOITZA • 2005eko urtarrilaren 28a • V. urtea • 185. zenbakia • DOAN BANATZEKOA

KULTURA

Debagoieneko zerbitzu turistikoen gida kaleratu dute /5

MILA ELORTZA / ANGIOZARKO ALKATEA

"AHTk ez du arazoa konponduko; hala ere, erakundeek ez dute informazio guztia ematen" **/8**

Goienka2a

'Cocidito Madrileño' antzezlana gurera iritsiko da laster

IRAGARRITAKO DENBORALEAK DEBAGOIENEAN UTZITAKOAK

Elurrak eta, batez ere, izotzak arazo larriak sortu dituzte errepidean

- *Eguaztenean kolapsatuta egon zen Bergara eta Arrasate arteko kaminoa*
- *Bidaiari batzuek bost ordu eman zituzten Bergaratik Oñatira joateko*
- *Arantzazun 55 cm-ko elur geruza eta Durun metro betekoa*
- *20 tona gatz bota zuten errepideetan eguaztenean*
- *Hainbat ekitaldi bertan behera geratu dira denboraleagatik*

Eguraldi iragarpenek zioten bazetorrela, eta atzerapen apur batekin bada ere, etorri da. Elurra mara-mara, 0 gradu gainditu ezin zuten tenperaturak, errepideetan eragozpenak, eskolak bertan behera... Ezohiko egunak izan dira oraingo astekoak eta oraindik ere hotz egiten segituko du hurrengo egunotan. Elurra hainbat lekutan ezin izan dute kendu oraindik, eta egin duen hotzagatik ez denez urtu, izotz plaka arriskutsuak sortu dira. Hala ere, elurteak irudi politak ere laga digu, ohikoa den moduan. **/4-5**

GOIENKARIA

Goian, elurra kentzeko makinak Elgetan; behean, Aretxabaletako Otalora.

ASTEKO GAIA: DEBAGOIENDARRAK TXINARI BEGIRA

Txinatarrak gurean, eta gu eurenean

Txinaz gero eta jakin-min handiagoa dago Debagoienean. Hemengo enpresak han inbertitzen eta ezartzen ari dira, eta komeni zaigu Asiako herensugea hobeto ezagutzea. Batez ere, kontuan hartuta datozen urteotako herri boteretsuenetariko bat izango dela arlo ekonomikoan.

Hala ere, kontraste handiak daude: Txinaren zati handi bat gaizki bizi da, eta emigratzen jarraitzen dute. Debagoienean txinatar asko bizi dira. **/2-3**

BERGARA

Hiru tona inguru jaso dituzte sahararren alde

Bergarako Udalak eta Komite Internazionalistak taldeak deitutako Sahararako laguntza kanpainak harrera bikaina izan du aurten ere. Hala ere, iaz baino zertxobait gutxiago batu dute aurten. 2.800 kilo inguru jaso dituzte, atuna, azukrea eta konpresak batuta. Dirutan, 4.000 euro batu dituzte. **/7**

ARRASATE

Belgikatik ekarriko dituzte arbolak Monterronerako

Monterron parkean botatako zuhaitzak ordezkatzeko, Belgikako mintegi batean erosiko ditu Arrasateko Udalak zuhaitz berriak. 40 bat ekarriko dituzte. Botatakoak baino gehiago. Izan ere, ekarriko dituztenak txikiagoak dira eta kopuru bera ipiniz gero, hutsuneak sortuko lirateke Monterronen. **/7**

DEBAGOIENA/4-5 • IRITZIA/6 • HERRIZ HERRI/7 • KIROLA/10 • NON-ZER/16-17 • SAILKATUAK/18 • ESKELAK/19 • HARPIDEDUNEN TXOKOA/21 • TELEBISTA/22

GOIENKARIA
Egubakoitza / 2005eko urtarrilaren 28a

Txina, aurpegi asko dituen herensugea

■ Debagoienera txinatar asko datorrela eta gure enpresak hara doazela, herri harekiko interes handiagoa dugu

LEIRE KORTABARRIA

Munduko ekonomian, datozen hamarkadotako herensuge handiena Txina izango da. Bere Barne Produktu Gordina munduko altuena izatea aurreikusten da 2050erako. Azken 25 urteotan, batez beste %9ko hazkunde tasa izan du, inoiz beste inongo herrialdek baino askoz handiagoa –Europako Batasunaren batez bestea %2,4 da. Gero eta gehiago, kapitalak eta enpresek Txinan dute jomuga, baita Debagoienekoek ere.

Horren ondoan, txinatarrek emigratzen jarraitzen dute, langileek lanordu ahalik eta gehien egitea eskatzen dute, eta orain dela gutxi bakarrik utzi zen bertan behera nekazariek urtean 30 egun doan lan egitearen beharra. Debagoienera txinatar asko iritsi dira azkenaldian. Arrasaten eta Bergaran, bazar bana zabaldu dute. "Hemen hobeto, hemen hobeto": hori da Bergarako dendari gazteak gaztelaniaz esateko gai den gauza bakarra. Ez dakite hemengo hizkuntzez; hala ere, gurera etorri dira eta bizibidea aurrera ateratzen dihardute. Txinatarrak isilak eta langile saiatuak direnaren inpresioa berresten dute; eta baita, han bizimodu errazik ez dutenarena ere. Gurean pozik daude. "Bizimodua oso desberdina da, baina gustura nago hemen. Orain, gaztelaniaz ondo ikasi nahi dut", dio Zhun Guang Jiang Arrasaten bizi den txinatarrak.

Oier Etxeberria orain urte erditik Txinan diharduen langileak dio: "Txinan, batzuk izugarri aberastu dira espekulazioa, pribilegioak... edo beste kontu batzuengatik; baina nekazariek, ibarreko baten lan kopuru bera egin eta hamar aldiz gutxiago irabazten du. Asko hirira doaz dirua familiari bidaltzeko".

TXINATARREZ IKASTEN

Debagoiendarendako, Txinarekin hartu-emana estutzea beharrezkoa izango da. Han bizi diren ibarrekoak pozik daude: diotenez, txinatarrak abegitsuak, langileak eta harrera onekoak dira. Shangai hirian Txinako lehenengo Euskal Etxea inauguratu dute hil honetan bertan.

Hartu-eman horren eskutik, debagoiendarron artean ere Txinarekiko interesa handitzen doa: esaterako, hizkuntza akademia ezagun baten, txinatarrezko eskolak ematen dituzte aurten ezkero. Dickie Lai Hong Kongeko txinatarrak dioskunez, "hasieran jendeak galdetzen zidan ia japonieraz egiten genuen Txinan. Orain, oro har, gehiago dakite eta galdetu ere, gehiago galdetzen du jendeak".

Arrasaten eta Bergaran bazar bana zabaldu dute txi

IRAGANA

Aldaketa handiak azken mende laurdenean hasi dira Txinan

Iraganak pisu handia du oraindik Txinan. Azken mende laurdenean hasi de aldatzen, izan ere, XIX. eta XX. mendeetan, gatazka zibilak, gosete ikaragarriak, porrot militarrek eta kanpoko okupazioak iragan feudalean hondoratuta zeukaten. Hirira joaten hasi da jendea, baina %75 oraindik nekazari herrixketan bizi da, giro tradizionalean.

Bestetik, askok uste dutenaren kontra, ez da herri kapitalista bihurtzen ari. Gazteek Mendebaleko ohiturak hartzen ari dira, baina Txinako betiko balioen aldekoak dira.

Oñatiko b.h. institutua
zuazola-larrañа
S. Lorentzo z/g - aita madina z/g tel.: 943782150-943781268
LH LARRAÑA 25
K GS Q KALITATE ZIURTAGIRIA

OÑATIN
LANGILEENTZAKO IKASTAROAK

EUSKAL LANBIDE KUALIFIKAZIO SISTEMARI LOTUTAKO KATALOGO MODULAR BARNEAN

EPEALDIA: 2005 OTSAILA – 2005 EKAINA

SUBENTZIONATUAK % 100

	KURTSOA	ORDUAK	DATA	ORDUTEGIA
HASTAPENA	**DISEINUA eta MEKANIZAZIOA**			
	PLANOEN IRAKURKETA/CAD	50	2005/02/21 – 2005/03/23	18:00 - 20:40
	TORNO KONBENTZIONALA	80	2005/04/04 – 2005/05/12	17:30 - 21:00
SAKONTZEA	**CNC**			
	TORNO PROGRAMAZIOA C.N.C. 8050/55	40	2005/02/28 – 2005/03/23	18:00 - 20:45
	PRESTAKETA ETA TORNO PROGRAMAZIOA C.N.C 8050/55	40	2005/04/04 – 2005/04/28	18:00 – 20:30
	MEKANIZAZIOA TORNO C.N.C. 8050/8055	50	2005/05/09 – 2005/06/02	17:30 – 20:40

Izena emateko: Oñatiko Institutua, Larrañako Lanbide Heziketa Egoitzan, San Lorentzo auzoa z/g 943 78 21 50
09:00-13:00 / 15:00-17:00

IZEN EMATEKO EPEA ZABALIK

EUROPAKO BATASUNA
Europako Gizarte Fondoa
EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
HOBETUZ

GIARTZU DERMOESTETIKA ZENTROA
Espainiako Azaleko Estetika Konpontzailearen Taldeko kide
Azalaren zahartzearen kontrol zientifikoaren unitatea.
Boni Laskurain 3 BERGARA
943 76 35 71

Laser bidezko depilazioa
Ile mota bakoitzarentzako laser bat.
Ile kolore bakoitzarentzako laser bat.
• Neodimio Yag laserra
• Alexandrita laserra
• Fotodepilazioa
Ordua eskatuta:
diagnostikoa, proba doan eta aurrekontua.

LEIRE KORTABARRIA

inatar etorkinek. Negozioa aurrera ateratzeko gai dira euskaraz edo gaztelaniaz jakin gabe.

DICKIE LAI / GUREAN BIZI DEN TXINATARRA

"Txinatar askok handik joan nahi dute"

Hong Kongekoa da izatez Dickie Lai, txinatarra hortaz, baina arrasatear batekin ezkondu eta hemen bizi da 7 urtez geroztik.

Alde handia dago Hong Kongen eta Debagoienaren artean?

Bai, bizimodua oso desberdina da. Han jendea lanerako bizi da asko; hemen ere lan egiten da, baina familia eta lagunenganako gertutasun handiagoa dago. Oso gustuko ditut hemengo bizimodua eta kultura. Handik, familiaren falta sumatzen dut.

Urtetan gurean bizi zara; zelan ikusten duzu zure herria?

Alde onak eta txarrak ikusten ditut. Ni Hong Kongekoa naiz, eta horren eta Txina komunistaren artean ere aldea egon da: Txina komunista tradizionalagoa da; Hong Kongen kultura nahasketa handiagoa dago, mendebalarragoa da. Baina aldea txikitzen doa orain. Oro har, jendeak gehiago hitz egiten du politikaz.

Txina osoan aldaketa handiak daude orain, ekonomian batez ere.

Begi onez ikusten dut hori. Txina munduari zabaltzen ari da, eta hori ona da. Ekonomia gero eta indartsuagoa izatea ere oso ona da, jakina; jendeak lana topatzeko gero eta aukera gehiago izango ditu. Hemengo enpresendako ere aukera onak egon daitezke Txinan.

Hala ere, kontraste handia dago Txina kapitalistaren eta nekazariaren artean. Nekazarien bizimodua oso eskasa da oraindik; gauzak hobetu dira bakarrik kapitalarendako. 1.000 milioi biztanle dituen herri batendako, hobekuntza oso poliki etorriko da. Horregatik, txinatar askok oraindik handik joan nahi dute, baina oso gogorra da Mendebaleko bizimodura egokitzea, desberdintasun handiak daudelako.

DATUAK

Demografian, geografian, ekonomian... hainbat datu interesgarri

Munduko herri populatuena da Txina (1.300 biztanle inguru ditu), eta hortik datoz desberdintasun eta hobekuntzarako arazo asko. Laugarren herrialde handiena da hedaduran. Jaiotza tasa da 1,69 ume emakumeko. Herrialdearen izen osoa da Txinako Herriaren Errepublika, estatu komunista. Hong Kong Erresuma Batuaren aspaldiko kolonia orain Txinaren administraziopean dago. Munduko lehen tabako ekoizlea da, eta bigarren te ekoizlea. 1978a ezkero ezarritako berrikuntza gehienak nekazari sektorean izan dira.

GURE EKONOMIA ETA ENPRESA, TXINARI BEGIRA

Txina gero eta erakargarriagoa da Debagoieneko enpresendako. Fagor, Copreci (argazkian, Txinako euren lantegiaren inaugurazioan), Wingroup, ezagunenen artean, Txinan ezarri dira azkenaldian; eta ez dira bakarrak. Debagoieneko langile asko bizi da Txinan, eta eurek baieztatzen digute zein garrantzitsua den hemengo ekonomiarendako Txinarekin hartu-emanak izatea: "Munduan fabrikatzen diren gauza asko Txinan fabrikatzen dira. Oso argiak eta langileak dira eta bizkor ikasten dute. Horregatik, Debagoieneko enpresek han fabrikatzen ez dutena egin beharko dute", dio Oier Etxeberriak, Txinan bizi den langile aretxabaletarrak.

CHEVROLET
GIPUZKOA AUTOAK
Otaola Etorbidea, 27 - Eibar - Tel.: 943 20 25 00
Karobi industrialdea z/g - Olaberria - Tel.: 943 88 51 50
www.chevrolet.es

FISIOTERAPIA KONTSULTA BERRIA
Irene Unzueta
Ordua hartzeko:
San Martin Osasundegia
Ramon Mª Lili 2
943 76 59 39

Langile okupatuentzako 100%eko prestakuntza finantzatuak
AKADEMIA BASTIDA
Informatika
Disenua
Gestioa
Hizkuntzak
Giza baliabideak
Info: 943 79 35 33
formacioncontinuabego@bastida.es

GOIENKARIA
Egubakoitza / 2005eko urtarrilaren 28a

IRAGARRITAKO ELURTEA DEBAGOIENEAN

Siberiako elurtearen ostean izotza eta hotz handia datozen egunotan

Debagoieneko errepideetan arazo handiak eragin ditu egunotan egindako elurteak

MARIA AGIRRE

Eguraldi iragarpenek zioten bazetorrela, eta atzerapen apur batekin bada ere, etorri da. Elurra mara-mara, 0 gradu gainditu ezin zuten tenperaturak, errepideetan eragozpenak, eskolak bertan behera... Ezohiko egunak.

Pedro Arriaran *Txarrasko*-k izango du zer kontatu. Nikolas Segurola frantziskotarrak esan zidanez, Durun, hau da, Aloña inguruan duen txabolara joan zen *Txarrasko* astea pasatzera. Nikolasek eguaztenean egin zuen berba oñatiarrarekin, eta "ondo eta lasai" zegoela esan zion. Hori bai, 20 metroko ibilbidea egitea kostatu egin zitzaiola eta metro bateko elur kapa bazela esan zion. *Txarrasko*-ren kontakizunaren zain, gainontzeko debagoiendarrek bizi izandakoa aipatzera goaz. Askok izan dute bizipenen bat edo beste elurtea dela eta.

ERREPIDEETAN MAKINA BAT ARAZO

Leintz Gatzaga, Elgeta eta ibarreko auzo garaietan elurra zapaltzeko aukera martitzenean izan bazuten ere, eguazten goizean esnatu ziren Debagoieneko herri guztiak zuri jantzita. Gauez elurra egin zuen, eta goizean arazoak hasi ziren errepideetan. Arrasaten, Epele inguruan, kamioi batek izandako istripuaren ondorioz Arrasate, Bergara eta Oñati bitarteko zirkulazioa kolapsatu egin zen. Batek baino gehiagok bi ordu eman zituen auto barruan. Arratsaldeko 17:00 aldera beste istripu bat izan zen Elorregin, Oñatitik irtetea ezinezkoa izateraino. Oñatitik Aretxabaletara joateko, adibidez, bost ordu behar izan zituen batek baino gehiagok. Autobus geltokietara hurbildu zirenek ere, itxaronaldi luzeak. Jakina, inguruko mendateak itxita egon ziren kamioiendako une askotan, eta kateak erabiltzea beharrezkoa zen autoendako. Bien bitartean, elurra kentzeko makinak lanez gainezka. Errepideak garbitzen eta gatza botatzen nahikoa lan, eguaztenean 20 tona gatz bota zuten bailarako errepideetan. Arrasateko Udalekoei ere agortu egin zitzaien gatza, eguaztenean hiru tona bota baitzituzten. Gainontzean, bailarako udalek ohiko neurriak hartu zituzten. Oinezkoendako kaleak garbitzen eta gatza botatzen ikusi ditugu udaletako langileak. Izotzaren eraginez, kaleak arriskutsu izan dira, eta eguaztenean Arrasateko emakume bat ospitalera eraman zuten, irrist egin eta kolpea hartuta. Hala ere, Eskualde Ospitaleko larrialdi zerbitzuetan lan egiten duen Iñaki Agirianok esan digunez, eguaztena oso egun lasaia izan zen, "azken hilabeteetako lasaiena".

Eguaztenean 20 tona gatz bota zuten Debagoieneko errepideetan. Agortu egin zen gatza.

HOTZ HANDIA ETA ELURTE GALANTA

Siberiatik etorritako denboralea izan dugu astean, eta elurra gogo-





GOIENKARIA

Denetariko irudiak utzi ditu denboraleak: kaminoan arazo ugari ibilgailuendako, udaleko langileak kaleak garbitzen eta umeak jolasean. Ohiko irudiak elurteetan.

SALMENTA BATZUEK, GORA EGIN

Mendiko botak eta eskularruak erraz saldu dira elurrari esker

Hotzari aurre egiteko arropa eta oinetakoak saltzen dituzten dendetan, salmentek gora egin dute nabarmen. Arrasateko Sportland dendan, esaterako, egunotan mendiko bota ugari saldu dituzte. Cesar Azkarate dendako arduradunak zera esan digu: "Mendiko boten salmenta izugarria izan da, gutxienez bikoiztu egin da". Era berean, eskularru, txapel eta txamarrak erostera ere hurbildu da jendea, Azkarateren esanetan.

LANERA ERE EZIN JOAN

MUko eskolak bertan behera eta azterketak atzeratu egin behar

Mondragon Unibertsitatearen Eskoriatzako campusean, martitzen arratsaldean geratu ziren bertan behera eskolak. Eguazten goizean, berriz, gainontzeko campusetara ere ez joateko abisua helarazi zieten ikasleei. Azterketak, gainera, atzeratu egin zituzten. Fagorren San Andresko eta Garagartzako lantegietan, berriz, horniketa arazoak izan ziren eta langile gehienek etxean geratu behar izan zuten.

ARANTZAZUN KOMERIA UGARI

Arantzazun 55 cm-ko elur geruza eta Durun metro betekoa

Nikolas Segurola, Gomistegi baserrian bizi den frantziskotarra, neurgailua eskuetan etxe aurrera atera, eta 55 cm-ko elur geruza neurtu zuen eguazten goizean. Komeriak ere izan zituzten gauez: argi barik geratu eta linterna eskuetan lagundu zion Nikolasek ardi bati arkumea erditzen. Bestalde, Durun, txabola batean zegoen oñatiar batek esan zion Oñatiko inguru hartan bazela metro beteko elur geruza.

ARANTZAZURA JOANDAKOAK

Elurteak ezustean harrapatu, eta Sindikan lo egiten geratu behar

Nahiz eta eguraldi txarra zetorrela jakin, astelehenean Arantzazura bilera egitera joan ziren Oñatiko enpresa bateko langileak. Iluntzerako Arantzazu elurtuta zegoen, eta bidea arriskutsu zegoela ohartarazita, Sindikan lo egiten geratzea erabaki zuten 25 langilek. Hurrengo egunean ahal bezala jaitsi ziren, baina batzuek automobila bertan utzi behar izan zuten. Bilera ere, jakina, bertan behera geratu zen.

GOIENKARIA

Leintz Gatzagako mendatea itxita eta herria inkomunikatuta egon zen eguaztenean hainbat ordutan.

tik egiteaz gain, tenperatura hotzak izan dira. Debagoieneko termometroek zaila izan dute 0 gradu gainditzea, eta askotan zero azpitik markatzen zuten. Pello Zabala eguraldi adituak adierazitakoaren arabera, Arantzazun -7 gradu izan ziren eguazten goizean, eta -5 gradu baino gehiago ez zuten izan. Siberiatik etorritako denboralearen inguruan, berriz, honako azalpena eman zigun: "Polotik etorritako fronteak itsasoak zeharkatu eta elur maluta handiak ekarri ohi ditu. Siberiatik etorritako honek, berriz, Errusia, Polonia eta Alemania zeharkatuz hotz lehorra eta haize handia ekarri ditu. Elurra ere desberdina da, elur hautsa egin du, asentatzea kostatzen zaion horietakoa". Aste bukaeran eta datorren astean egingo duen eguraldiaren gainean, berriz, Pellok esan digu tenperatura baxuak izango direla asteburuan, eta datorren astean eguzkia izango dela goizetan, baina gauez hotz handia egingo duela. Era horretan, izotza izango da bazterretan. Errepideetan, horrenbestez, kontuz ibili behar.

Siberiatik etorritako denboralea izan dugu. Datorren astean eguzkia eta izotza izango dira.

ETXEAN GERATU EDO KALERA IRTEN

Elurtea dela eta, etxean geratu edo kalera irtetea izan dira aukerak. Etxean bero-berotan geratzea erabaki dute batzuek, baina asko izan dira elurrak utzitako paisaiekin gozatzeko auzoetara hurbildu direnak. Eta zelan ez, batzuek eskiak atera dituzte. Eguazten goizean, Arrasaten, Takolo inguruan, iraupeneko eskia egiten ari ziren lagun batzuk. Elur pilotak eta panpinak ere ez dira falta izan. Azkenaldian mendi eta basoetan ikusten diren quads delakoak, berriz, kalean ikusi ditugu.

Ezohiko egunak izan dira, eta debagoiendarren janzkera ere berezia izan da. Hotzari aurre egiteko arropak nagusi, inoiz baino bota gehiago saldu dira.

FAGORKO LANGILE ASKO ETXEAN

Lantegi eta ikastetxeek ere eguneroko jarduera eten egin behar izan dute. Eguaztenean, Fagorrek lanera ez joateko dei egin zien San Andresko langile guztiei, eta baita Garagartzako lantegiko askori ere. Horniketa arazoak izan ziren, kamioiak ezin zirelako iritsi. Astelehenera arte ez dute lanik izango. Ikasleei dagokienez, Leintz Gatzaga, Aramaio eta Elgetako ikasle askok ezin izan zuten eskolara joateko autobusik hartu, eta denboralea ikusita, Mondragon Unibertsitateak ez joateko dei egin zien ikasleei. Inoiz ez du guztion gustura elurra egiten, baina norberaren lana izan da alde ona aurkitzea. Txarrak berez etorri dira.

GOIENKARIA

Arrasateko Goi Eskola Politeknikoaren ingurua elurtuta eta ia hutsik eguaztenean.

DEBAGOIENEAN LABUR

Plataforma eratuko dute 18/98 sumarioan auziperatuta dauden debagoiendarren alde

Datorren eguaztenean, otsailaren 2an, aurkeztuko dute Bergarako kultura etxean 18/98 lege prozeduran auziperatuta dauden lagunen aldeko Debagoieneko plataforma. Ezker abertzale historikoko eta *Egunkaria* kasuagatik auzipetutako hainbat kideren aurkako auzia da 18/98 ezaguna. Ibarreko zazpi lagun daude auziperatuta sumario horretan. Hain justu, honako hauek: Natale Landa eta Amaia Arrieta arrasatearrak; Xabier Arregi, Jose Luis Elkoro, Fermin Lazkano eta Iñigo Elkoro bergararrak eta Bixente Enekotegi eskoriatzarra.

Ibarreko presoek itxialdiak egiten segitzen dute, "estatus politikoa onar dakien"

Debagoieneko euskal presoek itxialdiak egiten jarraitzen dute, Euskal Herri osokoak bezala, eskatzeko euren estatus politikoa onar dakiela. Hamar eguneko txandak antolatu dituzte. Datorren eguenera arte lau preso daude itxialdian: Frantziako Fleury Merogis espetxean dauden Igor Letona arrasatearra eta Ane Miren Alberdi bergararra; Jose Ignazio Gaztañaga arrasatearra, Alboloten dagoena, eta Joseba Arregi oñatiarra, Jaen IIan dagoena. Bestalde, otsailaren 3tik 13ra bitartean, beste honako hauek egingo dute itxialdia: Jon Mikel Illarramendi eskoriatzarrak, Fleury Merogisen; Kristina Goirizelaia arrasatearrak, Fresnesen; Mikel Askasibar bergararrak eta Joseba Erostegi antzuolarrak, Herrera de la Manchan; Xabin Usandizaga oñatiarrak, Badajozen; Xabier Lazkano bergararrak, Alcazar de San Juanen; eta Txus Goikoetxea arrasatearrak, Albaceten.

Hainbat ekitaldi bertan behera geratu dira denboraleak sortutako arazoengatik

Egunotarako iragarrita zeuden hainbat ekitaldi bertan behera geratu dira. Hauek dira batzuk: Kilometroak jaiaren alde Elgetako Espaloian egitekoa zen musika jaialdia; bestalde, Txantxiku ikastolak zapaturako Oñatin iragarrita zituen umeendako jolasak ere suspenditu egin dira, eta baita hainbat hitzaldi ere Aretxabaletan egitekoak ziorenak: eskualdeko kondairen gaineko kontaketa eta Udaleko Ingurumen Sailaren Aizkorriko parke naturalaren gaineko hitzaldia.

Debagoieneko zerbitzu turistikoak jasotzen dituen gida kaleratu du Mankomunitateak

Debagoieneko zerbitzu turistikoak jasotzen dituen gida kaleratu du Mankomunitateak. Eskualdeko jatetxeak, ostatuak, kultura eta kirol eskaintzak, azokak, hainbat telefono erabilgarri eta beste informazio ugari jasotzen ditu gidak. Bertakoondako ez ezik, kanpotik gure eskualdea bisitatzera datozenendako ere erabilgarria da gida, eta turismo bulegoetan zein hainbat toki publikotan egongo da eskuragai. Horrez gain, turismo arloko informazioa jasotzen duen buletina ere argitaratu du Mankomunitateak, 11. zenbakia, hain justu ere.

Plataforma eratu dute Udalatx azpitik harria ateratzeko egitasmoaren aurka daudenek

Udalatx azpitik harria ateratzeko dagoen egitasmoaren aurka daudenek plataforma eratu dute, Udalatxen Aldeko Plataforma izenekoa. Bultzatu nahi dituzten ekimenen berri eta Udalatx barrutik ustiatzeko proiektuaren aurka egoteko arrazoien berri emango dute plataformako kideek datorren astelehenean, 18:30ean, Monterronen. Plataforma horretan daude ezkerreko alderdi nagusiak (Batasuna, Aralar, Ezker Batua, Zutik…) eta sindikatu gehienak (CCOO, LAB eta ESK). Horiekin batera, Arrasateko beste hainbat talde ere bai.

AHTren ordez Tren soziala aldarrikatzeko manifestazioa deitu dute zapaturako Bilbon

Lastertasun Handiko Trenaren ordez beste alternatiba bat proposatzen dutenek manifestaziorako dei egin dute zapaturako, Bilbon. Aldarrikatzen dutena da tren soziala, diotenez Abiadura handiko Trenak "ez dituelako konponduko Euskal Herrian merkantzien garraioak gaur egun duen arazorik nagusia, hau da, etengabeko handitze-bide zoro batean murgilduta izatea". Gainera, tren horrek "hainbat kalte ekarriko dituela" diote, "bai ingurumenean, gizartean eta ekonomian". Sindikatu nagusiek eta ezkerreko alderdiek egin dute dei manifestaziorako, baita beste hainbat gizarte taldek ere. 18:30ean hasiko da Jesusen Bihotza plazan.

GOIENKARIA
Egubakoitza / 2005eko urtarrilaren 28a

Gutunak

Belodromotik Bakea Euskal Herrira

Ziur gaude, bakea hitza, Euskal Herrian, gure inguruan, gehien entzuten den horietakoa dela. Bakea, elkarrizketa egunsentia arte, autodeterminazioa, bizitzeko eskubidea, herriari galdetu behar zaiola, XXI. mendean euskal unibertsoko Google bilatzailearen hitzik bilatuenak dira. Beraz, zergatik ez gara bakean bizi?

Aspalditik, Ezker Abertzalea galdera honi erantzuna bilatu nahian dabil. Saiakera desberdinak egin eta gero (Lizarra-Garazi akordioa, adibidez), urteta-ko lan eta esperientziatik abiatuta, Batasunak prozesu baterako metodologia bat aurkeztu zuen Belodromoan. Orain bai, bakea lortzeko, betiko.

Eta zergatik orain bai, eta aurreko-etan ez? Batasunan uste dugu baldintza politikoak daudelako, hau da, orain dela 25 urte bezala, marko juridiko-politikoaren eztabaida irekita dago. Orduan, Gernikako Estatutuarekin eta Nafarroako Foru Hobekuntzarekin arazoa faltsuan itxi zen, gatazkaren oinarriak ukitu gabe: zenbait proiektu politikoak (beraien artean gurea, independentismoa) ezin dira aurrera eraman.

Hogeita bost urte hauetan denetarik izan dugu, su-etenak, negoziazioak, biktimak, presoak, gerra zikina, tortura… Etapa honetan, Ezker Abertzaleak bakarrik aldarrikatu izan du aldaketaren beharra, hori bai, borroka konpromisoarekin eta sufrimendu askorekin. Baina, esan bezala, aukera berri bat ireki zaigu. Orain, Euskal Herri osoan, ia agente guztiak, PSE-EEtik PNVraino, proiektu bat dugu herriari galdetzeko. Goazen hitz egitera, ba!

Eta nola? Ba, orain arte balio ez duena baztertuz eta bide berriak arakatuz, ez dago irtenbide magikorik. Hasteko, Batasunak uste du prozesu luze batez hitz egin behar dela, edo beste hitz batzuekin esanda, bakea ez dela programa elektoral bat. Euskal herritar guztien eskubideak errespetatuak izateko elkarrizketa prozesu bat martxan jartzea da gure proposamena, herriari galdeketa batekin bukatuko duena.

Elkarrizketa hau benetakoa izateko, merezi duen seriotasunarekin aritzeko, eragileak konpromiso zehatzak hartu beharko dituzte. Batasunak publiko egin ditu eta beraien artean hiru hauek azpimarratu nahiko nituzke: galdeketaren emaitza errespetatzeko konpromisoa, bide baketsu eta demokratikoak soilik erabiltzeko konpromisoa eta eragile guztien parte-hartzea ahalbidetzeko konpromisoa. Gainera, akordioan ONUren Adierazpenak onartzeko konpromisoa hartzen dugu.

Teoriatik praktikara jaisten, Batasunak, bi akordio maila planteatzen ditu: bata, Euskal Herriko eragileen arteko akordioa, gaurko egoeratik abiatuta, gure herria egituratzeko dauden proposamen guztiak aurrera eraman ahal izateko. Euskal herritarren onespena beharko zuen eta sinatzaileek Espainia eta Frantziarekin negoziazio prozesua martxan jarriko zuten. Eta bestea, ETAren eta Estatuen arteko akordioa: desmilitarizazioa, presoak, iheslariak eta biktimak.

Eta miloi euroetako galdera: zer egin behar du ETAk? Hasteko, argi dago beraien militanteen eskuetan gelditzen direla beraien erabakiak. Hori esan eta gero, askotan adierazi du bakearen aldeko hautua egin duela, bere lehentasuna dela, domekan publiko egin zen azken agirian garbi azaltzen zuen Anoetako proposamena azkeneko muturreraino eramateko prest dagoela. Beraz, zergatik hainbeste aitzakia eta eskaera kadukoak?

Baina badago bi miloi euroetako galdera bat baino gehiago: noizko Guardia Zibilaren tregua? Noizko torturaren amaiera? Noizko dispertsioaren amaiera? Noizko gure herriaren eskubideen onarpena?

Preso politikoen kolektiboak eta errefuxiatu eta iheslarien kolektiboak Anoetako proposamenaren aldeko iritzia plazaratu zuten.

Hau da hainbeste komentario eta ilusio piztu duen ekarpena. Batasunak aurrerapauso bat eman du, busti egin da. Beste alderdi politiko eta eragileei sakonki aztertzeko deia egin diegu. Mugitu-ko al dira? Orain dela 25 urte egindako akatsak errepikatuko ditugu? Bakeaz hitz egin beharko dugu ala bakean bizi-ko al gara, behingoz?

DEBAGOIENEKO BATASUNA
Debagoiena

Inposatu nahi diguten AHTri buruz

Abiadura Handiko Trenaren proiektua batzuen interesekoa dela esan daiteke, denon diruarekin eraikiko delako. Proiektuak gobernuak planteatzen duenaren kostu handiagoa du, eta herritarrengandik jasoko duten diru kantitatea 6.000 milioi eurokoa izango da. Beraz, AHT kontsumismoan oinarritzen da, eta boterea eta aberastasuna batzuen esku gelditzen dira.

Proiektua burutu nahi dutenek soilik euren interesei begiratzen diete eta oso kontziente dira basakeria hori, herriari erakutsiko balitzaio, herriak ezetz esango lukeela. Horregatik dabiltza ezkutuka eta gezurretan.

Bien bitartean, milioiak xahutzen dituzte engainatzeko egindako iragarkiekin.

Alvaro Amann Lakuako Garraio eta Herri Lanen sailburuaren esanetan, Espainiak ez badu parte hartzen proiektuan, hala eta guztiz ere, egin egingo da. Bere ustetan, atzeratzen ari direla-eta, antza denez, sekulako grina du lehenbailehen hasi eta bukatzeko.

Hori guztia kontuan izanik, proiektua produktu politikoa da eta produktu horrek marka du. Inoiz eztabaidatu ez dena euskal herritarrekin, baina erabakitakoa dena.

Hori aurrera eramango balitz, zatitutako Euskal Herri batean biziko ginateke.

ARAMAIOAR BAT
Aramaio

Abaroaren ordez, zer?

Arrasateko Udalak hainbat hedabidetan aditzera eman du epe zehatz batzuetan Iturbide egoitzako instalazioetan hobekuntza lanak egingo dituela, gaur egun dituzten premiei hobeto erantzuteko.

Abaroa erretiratuen elkarteko batzarrak esku artean daukan informazioaren arabera, uste du Udalak gaur egun Abaroa dagoen lekutik laster bota gurako gaituela. Eta batzar honek ez du uste Udalak Abaroaren ordezko leku aproposik aurkituko duenik, hau da, oraingoaren baldintza berberak edo hobeak betetzen dituztenak.

Horren aurrean, Abaroaren batzarrak bazkideei aditzera eman gura die gai horrekin oso arduratuta daudela, ez dakitelako noiz eta nora eramango dituzten.

ABAROA ERRETIRATUEN ELKARTEKO BATZARRA
Arrasate

Konstituzio honi ez

Hona hemen 11 arrazoi euskaltzaleok ezezkoa emateko Europako Itun Konstituzionalari:

1. Hizkuntz eskubideak ez dira oinarrizko giza eskubideak. Are gehiago, Eskubide ekonomikoek hizkuntz eskubideek baino garrantzi handiagoa dute.

2. Hizkuntz komunitateen inguruko aipurik ez dago. Hau da, geure hizkuntzak zokoratu egiten ditu.

3. Europako herritarren arteko bereizkeria eragingo du.

4. Europar hiritar gaitu, soilik, Ituneko hizkuntza batean jardunez gero. Ez bestela.

5. Europaz kanpoko hizkuntzen status eta tratu bera izango dugu.

6. Geure hizkuntzak ez dira inon egongo presente. Ordezkari politikoek ere ezin izango dute berezko hizkuntza erabili.

7. Ituna geure hizkuntzetara itzultzeko aukerara mugatuko dute sustapen guztia.

8. Geure hizkuntzen normalizazioa galgatuko du.

9. Ez dituzte abian jarriko geure hizkuntzen garapenerako eta sustapenerako proiektuak.

10. Estatuetako hizkuntzen arteko lehia sustatuko dute eta geure hizkuntzak joko horretatik at utziko dituzte.

11. Hizkuntzen arteko hierarkia nabarmenagoa eragingo du.

ARRASATEKO EHE
Arrasate

Eskerrik asko, Aita Menni

Arrasateko Aita Menni I osasun egoitzari eskerrak emanez, Luzia Arantzabal Askasibar zenaren (G.B.) familiak eta bere senitartekook gure esker ona azaldu nahi diogu Aita Menni I osasun egoitzari eta bere egitekoa bideratzen duten guztiei: sendagile, erizain, arduradun eta gainontzeko guztiei.

Jakin nahi duten guztiei, argi eta garbi hauxe azaldu nahi genieke, egoitza honetan gure senidea, Luzia, oso ondo zaindu dutela; eta ondorioz, premian legokeen beste edonori bihotzez gomendatzen diogula zentro honetara jo dezaten, ez baitute damurik izango.

Eta Aita Mennikoei, esker onez, horrelaxe jarrai dezazuela opa dizuegu.

SERAPI ARANZABAL
Arrasate

Ganorazko tranbia

Debagoienean barrena igaroko den tranbiaren gaineko artikuluak irakurtzeko aukera izan dut azken asteotan GOIENKARIAn. Oso ideia ona iruditzen zait tren txiki horrena, herri barruko zein eskualdeko herrien arteko komunikazioa erraztuko duelako.

Hala ere, zalantza asko dauzkat proiektuaren inguruan eta eszeptiko samarra naiz; ez dakit inoiz ikusiko dugun martxan… Esate baterako: nondik pasatuko da? Kaletik? Tokirik badago? Eta aparkalekuak (herri batzuetan 300 aparkaleku-eta galduko dira)? Eta bidegorriak? Paseatzeko tokiak? Eta geralekuak (Bergarako kiroldegian ez ei da geratuko)?

Ilusioa piztu duen proiektua da tranbiarena, baina egin dezatela ganoraz, mesedez. Eskerrik asko.

A. LASKURAIN
Bergara

Goienkaria
DEBAGOIENEKO ASTEKARIA

ZUZENDARIA
Eneko Azkarate

ERREDAKZIO KONTSEILUA
Edorta Mendieta, Miguel Angel Elkoroberezibar, Josemari Velez de Mendizabal

ADMINISTRAZIOA
Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa

SAILETAKO ARDURADUNAK
Iñaki Iturbe (Diseinua)
Gotzon Arzelus (Publizitatea)

PUBLIZITATEA
Mireia Larrañaga, Natali Martínez, Izaskun Bolinaga, Ziortza Martín, Imanol Elortza, Amaia Mundiñano

PRODUKZIOA
Iban Arantzabal

TESTUEN ZUZENKETA
Sergio Azkarate

HARPIDETZA ETA BANAKETA
Marta Leturia

Goiena Komunikazio Zerbitzuak

LEHENDAKARIA
Estepan Plazaola

ZUZENDARI NAGUSIA
Iñazio Arregi

GOIENKARIAk ez du bere gain hartzen orri hauetan adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

ANTZUOLA

Astelehenean zabalduko dute haurtzaindegia, bost umerekin

Datorren astelehenean, hilak 31, zabalduko ditu ateak herriko haurtzaindegiak. Oraingoz, bost umek ekingo diote ikasturteari, baina gehiagorendako tokia ere badago, guztira, hogei umerendako. 0 eta urtebete bitarteko umeendako gelan, zortzirendako; urtebete eta bi urte bitarteko umeendako gelan, berriz, hamabi umerendako tokia dago.

Oraingo asteburuan inaugurazio ekitaldi ofiziala egitekoak ziren, baina, Jaurlaritzako arduradunek ezin zutela eta, atzeratu egin dute. /A.I.

U.M.

ARAMAIO

Aratusteetarako eta Santa Ageda bezperarako prestatzen dabiltza

Datorren asteburuko ospakizunetarako lanean dabiltza Aramaion. Batetik, barikuan, Santa Ageda bezpera ospatzeko kalez kale eta auzoz auzo ibiliko dira bai eskolako umeak baita Bizente Goikoetxea abesbatzako kideak ere.

Bestalde, zapatuan, Aratusteetako mozorro lehiaketa egingo dute. 17:30ean hasiko da kalejira, kiroldegian; eta 18:00etan egingo dute sari banaketa, plazan. Lau sari izango dira: taldeka mozorrotzen direnendako bi eta mozorroaren orijinaltasuna saritzeko beste bi. /U.M.

ARRASATE

Belgikatik ekarriko dituzte Monterronerako zuhaitz berriak

Monterron parkean botatako zuhaitzak ordezkatzeko, Belgikako mintegi batean erosiko ditu Arrasateko Udalak zuhaitz berriak. 40 bat ekarriko dituzte. Botatakoak baino gehiago. Izan ere, ekarriko dituztenak txikiagoak dira eta kopuru bera ipiniz gero, hutsuneak sortuko lirateke Monterronen. Udaletik jakinarazi digutenez, espezie autoktonoak ekarriko dituzte: haritzak, pagoak, ezkiak... Otsailaren erdialde inguruan ekarriko dituzte zuhaitzok. CESPA arduratuko da haiendako zuloak egiteaz eta gero, zuhaitzak landatzeaz.

Monterron parkea Arrasateko leku esanguratsuenetako bat da. Zuhaitz ikusgarriak ditu, tartean, 100 urte baino gehiago dituzten sekuoiak. Baina, iaz zenbait zuhaitz bota egin behar izan zituzten, gaixorik zeudelako. Orain, haiek utzitako hutsuneak bete gura dituzte. Eta aurrerago, parkea diseinatuko dute berriro. /U.M.

ARETXABALETA

Kutxa jarri dute udaletxeko harreran Asiarako dirua batzeko

Asia hego-ekialdean tsunamiaren erruz kaltetuak izan ziren herriei laguntzea erabaki du Aretxabaletako Udalak. Hala, bada, nazioarteko herriei eta proiektuei laguntzeko duen diru partidatik %15 bidaliko du, ia 7.900 euro. Era berean, herritarrei egin die dei ahal duten neurrian dirua eman dezaten. Horretarako kutxa jarri dute udaletxeko harreran, eta otsail osoan egongo da bertan. Batutako dirua zein Udalak emandakoa Karitasko Nazioarteko Lankidetzaren bitartez bideratuko dute Asiara. /M.A.

ESKORIATZA

Aurkeztu dute Anoetako proposamena Eskoriatzan

Anoetako proposamena aurkeztu zuten martitzen iluntzean Eskoriatzako udaletxean. Jon Gorrotxategi aritu zen hizlari lanetan. Bilkuren aretora 50 lagun inguru gerturatu ziren. Antolatzaileak pozik azaldu dira, "izan ere, herriko hainbat elkarte eta alderdi politikotako jendea izan da bertan. Hasteko, bideo bat ikusi zuten bertaratutakoek eta ondoren, proposamena zertan datzan azaldu zien Gorrotxategik. Amaitzeko, herritarrek askotariko galderak egin zituzten; Ibarretxe Planari buruz, esaterako. /Z.V.M.

OÑATI

Errekalde herri eskolak hamabostaldi kulturala antolatu du otsailerako

Errekaldeko herri eskolak 25 urte betetzen ditu aurten, eta otsaileko lehen hamabostaldian, euskal kulturaren hamabostaldia egingo dute urteurrena ospatzeko. Egitarau zabala prestatu dute eta denetarik antolatu dute: antzerkia, zinema, DJ emanaldia eta hitzaldiak, besteak beste.

Errekalde herri eskolako guraso elkarteak antolatu du euskal kultura hamabostaldia, eta guraso, ikasle zein herritarrendako ekitaldiak antolatu ditu. Adibidez, martitzenean, *Beckham izan nahi nuke* filma emango dute Santa Anan; Santa Ageda bezperan, kopla kantari aterako dira kalera eta horren ondoren DJ emanaldia izango dute plazan. Natur eskolakoekin baserriaren gaineko hitzaldia antolatu dute, txango eta guzti.

Berez, abuztuan beteko ditu 25 urte Errekalde herri eskolak, baina urte osoan egingo dituzte urteurreneko ospakizunak.

25. URTEURRENA

1980ko abuztuan amaitu zituzten Errekaldeko eraikineko lanak eta irailean hasi ziren lanean han. Aurretik plazan egon ziren, gaur egun ikastola dagoen eraikinean. Errekaldeko herri eskola bertako irakasleekin estreinatu zuten, eta ordutik hona euskalduntze prozesuan lan handia egiten ari dira eta D eredua dute orain dela 12 urtetik. Umeak Gorritxitxira joaten ziren lehen, baina Errekaldeko eraikinera joan zirenetik, Haur Hezkuntza ere indartu egin dute. Gaur egun, 2 eta 12 urte bitarteko 220 ikasle daude eta 23 irakasle. /O.E.

Zertzelada

Errekalde herri eskolak 25 urte beteko ditu aurten, eta otsailean ez ezik, aurrerago ere ekitaldiak egingo ditu urteurrena ospatzeko.

BERGARA

Hiru tona inguru jaso dituzte saharartarren aldeko kanpainan

Bergarako Udalak eta Komite Internazionalistak taldeak deitutako Saharako laguntza kanpainak harrera bikaina izan du aurten ere.

Antolatzaileek emandako datuen arabera, 2.800 kilo inguru jaso dituzte, atuna, azukrea eta konpresak zenbatuta. Dirutan, 4.000 euro inguru jaso dituzte. Oraindik ere dirua emateko aukera dago. Udaleko zein Komite Internazionalistak taldeko ordezkariek eskerrak eman nahi dizkiete kanpainan parte hartu duten guztiei.

Bestalde, Asiako hegoekialdeko itsasikarak kaltetutakoei laguntzeko 18.000 euroko laguntza ematea onartu du Udalak. /E.M.

E.M.

Materiala kaxetan sailkatu ondoren Donostiara eramango dute.

ELGETA

Debagoieneko Kirol Txapelketa Zirkuituaren azken jaia zapatuan

Bihar, zapatua, Elgetan elkartuko dira Debagoieneko Kirol Txapelketa Zirkuituko parte-hartzaileak eta antolatzaileak, denboraldiaren azken jaia ospatzeko. Masterretako irabazleak daude gonbidatuta jaira. 10:00etan kirol jolasak egongo dira eta 12:30ean, berriz, squash, tenis eta frontenisko sariak banatuko dituzte. 2005eko Kirol Txapelketa Zirkuituaren aurkezpena egingo dute ondoren, eta 13:00etan partaide guztiendako luntxa egongo da Bolatoki tabernan. /I.A.

GATZAGA

Gaztetxoentzako jokoak eta guztientzako afaria Inauterietan

Antolatu dituzte dagoeneko Inauteriak Leintz Gatzagan. Otsailaren 5a, zapatua, izango da egun handia. Guraso elkarteak hainbat ekimen prestatu ditu egun horretarako. Udalak ere, bere aldetik afaria antolatu du joan nahi duten guztiendako.

Aurten Garro jauregian dagoen elkartean egingo dute afaria. Zapatu gauean izango da hitzordua. Hala ere, bertara joan gura izanez gero, otsailaren 3a, eguena, baino lehen eman beharko da izena Labidea dendan. /Z.V.M.

GOIENKARIA
Egubakoitza / 2005eko urtarrilaren 28a

Duela sei urte hasi zen Mila Elortza Abiadura Handiko Trenaren aurka borrokan. Eta oraindik ere horretantxe jarraitzen du. Zapatuan, tren sozialaren aldeko manifestazioa egingo dute Bilbon, "AHTk zentzurik ez duelako".

OIHANA ELORTZA

Mila Elortza

AHT GELDITU! ELKARLANEAN

"AHTk ez du hemengo arazoa konponduko; hala ere, erakundeek ez dute informazio guztia ematen"

TREN SOZIALAREN ALDE

"Tren sozialak dauden trenbide sareak aprobetxatzea planteatzen du, Euskal Herrian dagoen merkantzien eta bidaiarien garraioaren arazoa ez du-eta AHTk konponduko"

PARISEN ETA MADRILEN ARTEAN

"Jaurlaritza Europari begira dago eta lotura hori izatea nahi dute, baina argi ikusten da Madrilgo gobernuak Madril indartu nahi duela"

OIHANA ELORTZA

AHT Gelditu! Elkarlana eta Tren Sozialerako Sarea. Helburu bera dute talde biek?

Abiadura Handiko Trena gelditzea da bien helburu nagusia; biak daude proiektu horren aurka. Tren Sozialerako Sareak ez du uste proiektu horrek gizarteak duen beharrari erantzungo dionik; eta AHT Gelditu! Elkarlanak, berriz, ingurumenean, kulturan eta gizarte mailan egiten duen sarraskiagatik.

Eta zer da tren soziala?

Abiadura Handiko Trenak hiriburuetan bakarrik izango ditu geltokiak. Tren sozialak, aldiz, ferrokarrilaren antz handiagoa du trenarena baino, hau da, erdibideko herrietan ere geltokiak izango lituzkeen trena da.

Herri batetik bestera joateko arazo gehiago daude hiriburutik hiriburura joateko baino, eta Abiadura Handiko Trenak arazo hori ez duela konponduko dio Tren Sozialerako Sareak. Egun, hiriburu batetik bestera dagoen zirkulazio fluxua %0,15 baino ez da. Horietatik gehienak ikasleak eta enpresaburuak dira: ikasleek ez dute dirurik Abiadura Handiko Trena ordaintzeko eta enpresaburu gehienek ere ez dute erabiliko, autoz joango direlako gero ere.

Zer planteatzen du tren sozialak?

Donostiatik Bilbora kostatik doan trenbidean, adibidez, ez da dirurik inbertitu egin zenetik. Beste toki batzuetan, dauden trenbideetan egin dituzte inbertsioak eta hobekuntzak eta 180 eta 220 kilometro orduko abiadura hartzen dute. Sistema pendularra eta beste sistema batzuk erabiliz dagoen sarea aprobetxatuz trenbide bera erabiltzen dute. Noski, hemen ere gune batzuetan inbertsio handiagoak egin beharko lirateke trenbide berriak egiteko, baina gehiena aprobetxatu ahal izango litzateke. Gainera, bai Zumarraga aldekoek eta bai Tolosa aldekoek badute trena erabiltzeko ohitura.

Europako gainerako herrietan ikusi dute abiadura handiko trenaren beharra?

Menditsuak diren lurralde gehienetan ez dute planteatu ere egiten horrelako proiekturik. Suitzan, esaterako, ez dago abiadura handiko trenik, eta ez dago Espainia baino atzerago. Eurek diote euren orografian ezin dela sartu hain azpiegitura handia duen proiekturik, eta dutenarekin moldatu behar dutela. Suitzan, hango konstituzioak jasotzen du ezin dela horrelako proiekturik egin, eta ezin da aldatu puntu hori, nahiz eta agintari ezberdinak egon gobernuan. Badakite turismoa oso garrantzitsua dela euren herriarendako, eta zaindu egin gura dute. Zerbitzu publikoek lehentasuna dute Suitzan. Hemen, ordea, norbanako autoak bultzatzen dituzte.

Alemanian badute. Merkantziak eta bidaiariak eramateko asmoa zuten, baina mantentze-lanetarako dirutza behar zela ikusi zuten. Biak garraiatzeko abiadura moteldu behar zuten, eta abiadura handiari eusteko, aldiz, garraio bat edo bestea aukeratu behar zuten.

***Euskal Y*-a ere merkantzia garraiatzeko izango dela esan dute.**

Konturatu direlako bidaiariekin bakarrik inoiz ez dela errentagarria izango proiektua. Merkantzia arina garraiatuko duela esan dute, baina behar hori tartean dauden herrietan dute, ez hiriburuetan. Gainera, ingurumen-inpaktua pertsonak garraiatzeko proiektuarendako bakarrik egin dute. Merkantziak ere eramateko beste ikerketa bat egin behar da, eta aldaketak ez dituztela erakutsiko esan dute.

Lur asko kenduko ditu Abiadura Handiko Trenak?

Bai. Gainera, egin dituzten horrenbeste planekin, lurrak kendu dizkigute. Gaur egun, Bergaran ez dago lurrik herriari jaten emateko. Berez, obligazioa du herri bakoitzak herritarrei jaten emateko beste lur erreserba edukitzeko. Debagoienean, zonako lur partzialei buruzko txostena egiten hasi dira eta konturatu dira herriek ez dituztela lur horiek, eta *area funtzionala* egin dute, hau da, eskualdeko lurrak batu eta denen artean banatu.

Lurra kentzeaz gain, gainera, Abiadura Handiko Trena hesi moduko baten barruan doa. Zehaztuta dute lauzpabost kilometroko egitea pasabide bat. Beraz, etxe pareko lursailera joateko zenbat kilometro egin behar ditu baserritarrak?

Erakundeek *Euskal Y*-ari buruzko informaziorik ez dutela eman diozue.

Informazio publiko garbirik ez da egon. Udalek ere ez dituzte eman. Enpresetako langileak probak egiten eta laginak ateratzen hasi dira pribatuak diren lursailetan, eta udalak ez dira harremanetan jarri jabeekin, ez diete ezer esan. Hor ere ikusten da gauzak ezkutuan egiten ari direla. Gainera, alderdi politikoetako kideek euren artean ere gai horretaz ez dutela askorik hitz egin uste dut.

Abiadura Handiko Trena gelditzeko eskatuz elkarretaratzeak egiten hasi zareten herrietan. Bergaran astelehenean egingo duzue.

Bai. Lehenengo udaletxera joango gara eta edozein herritarrek izan ditzakeen galdera logikoak egingo ditugu, eta horren ondoren, elkarretaratzea plazan.

Europak ez du dirurik eman *Euskal Y*-a egiteko eta Madrilek ere ez du eskatu. Jaurlaritzak, ordea, egin egingo duela esan du.

Azkenean gu guztion diruarekin egingo dute proiektua, baina arazoa hemen dugu, ez Europarekin dugun loturarekin. Alvaro Amam sailburua dago proiektuaren alde. Abenduan onartu zituzten aurrekontuetan, behintzat, ez dute diru nahikorik proiektu hori egiteko, ezta hurrik eman ere. Beraz, nondik aterako dute dirua? Gainerako arloetatik: hezkuntzari, osasunari, kulturari edo kirolari kendu beharko diote hori egiteko.

Europan ari dira planteatzen ez direla azpiegitura gehiago egingo abiadura handiko trenetan, eta dauden sistemak hobetuko dituztela. Eta hemengoak, aldiz, lehengora. Jaurlaritzakoak Europari begira daude eta lotura hori izan nahi dute, baina Madrilek Madril defendatu nahi du. Bilbotik Gasteizerako bidea aztertu du, baina Gipuzkoakoa ukitu ere ez du egin. Bilbo, Gasteiz, Burgos eta Madril lotu nahi ditu horrela. Eta Jaurlaritzak lanak Gipuzkoatik hasiko dituela esan du.

Zer konponduko du proiektu horrek?

Ezer ez. Hasteko, ez da bertako arazoa konpontzeko. Paris eta Madril arteko linearen barruan, Euskal Herria ere abiadura handiko tren barik ez gelditzea nahi dute agintariek. Demostratuta dago errepide eta garraiobideetan egiten diren azpiegitura handiak ez direla proportzionalak herrialdearen garapenarekin. Debagoiena punta-puntan dago, eta inoiz ez du azpiegitura handirik izan errepideetan, autobidea egin duten arte. Horrelako proiektuetan, polarizatu egiten dira gauzak eta beti handienak ateratzen dizkio etekin handienak. Hemen ere badirudi Bilbok aterako dizkiola, baina benetan, Madrilek eta Parisek irabaziko dute, Bilbok ez.

Merkataritza etxe handiak herrien kanpoaldean egiten dituzte eta autoz joan behar dugu bertara; eskualde bakoitzak ere osasun zerbitzu bakarra dauka, eta gehienok autoz joan behar izaten dugu. Batetik kontsumoa jaitsi behar dugula esaten digute, baina nola egingo dugu hori ez badaukagu egiteko bide egokirik? Zertarako behar dugu Abiadura Handiko Trena ezin badugu erabili? Hori eginda ere autoak erabiltzen jarraituko dugu.

Zapaturako tren sozialaren aldeko manifestazioa deitu duzue Bilbon. Zer aldarrikatzeko?

AHTk ez duela Euskal Herriak duen merkantzien eta bidaiarien garraioaren arazoa konponduko eta ingurumenean kalte larriak eragingo dituela.

Gazte ikastaroak

ARGAZKIGINTZA DIGITALA

Antonio Murilloren eskutik

- Hastapen mailakoa
- Otsailaren 15etik – martxoaren 17ra
- Astearte eta ostegunetan, 19:00-21:00
- HHI-EPAko informatika gelan (Ferrerias kalean)
- Matrikula: 20 €
  ikasle eta langabeek 12 €
- Plaza mugatuak



TXALAPARTA

Ttakun taldearen eskutik

- Hastapen eta sakontze mailak
- Otsailaren 18tik maiatzaren 28ra
- Ostiral (20:00-22:00) eta larunbatetan (11:00-13:00)
- Musakolako Saloian
- Matrikula: 20 €
  ikasle eta langabeek 12 €

ALBOKA

Angel Agirianoren eskutik

- Hastapen eta sakontze mailak
- Otsailaren 19tik San Juanak arte
- Larunbat goizetan, hiru txanda: 10-11, 11-12, 12-13
- Arrasate Musikalen
- Matrikula: 20 €
  ikasle eta langabeek 12 €

INFORMAZIOA ZEHATZAGOA: GAZTE BULEGOA • 943 77 00 65 • *gaztebulegoa@arrasate-mondragon.net*

ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

Gazteria saila

gasteizon
centro comercial abierto
merkataritza-gune irekia

GASTEIZEN HITZORDUA DUZU

www.gasteizon.com 2005EKO URTARRILAREN 28tik OTSAILAREN 3ra

CINES ZINEMAK
Florida Guridi

CINES GURIDI ZINEMAK

"CLOSER"
ASTELEHENETIK IGANDERA: 5,30-8-10,30
"ALEJANDRO MAGNO"
ASTELEHENETIK LARUNBATERA: 5,30 eta 9
IGANDEAN: 5 eta 8,30
"ELEKTRA"
ASTELEHENETIK IGANDERA: 5,30-8-10,30
"ENTRE VIVIR Y SOÑAR"
ASTELEHENETIK IGANDERA: 5,30-8-10,30
"LOS INCREIBLES"
ASTELEHENETIK IGANDERA: 5,30
"JOVENES"
ASTELEHENETIK IGANDERA: 8 eta 10,30
"RAY"
OSTIRALETIK IGANDERA: 5-7,45-10,30
ASTELEHENETIK OSTEGUNERA: 5,30-8-10,30
"EL AVIADOR"
ASTELEHENETIK LARUNBATERA: 6 eta 9,15
IGANDEAN: 5,15 eta 8,30

zinea

CINES ZINEMAK
Florida Guridi

CINES FLORIDA-GURIDI ZINEMAK

"LARGO DOMINGO DE NOVIAZGO"
OSTIRALETIK IGANDERA: 5-7,45-10,30
ASTELEHENETIK OSTEGUNERA: 5,30-8-10,30
"WHISKY"
OSTIRALETIK IGANDERA: 5-10,30
ASTELEHENETIK OSTEGUNERA: 5,30-10,30
"LA IMPORTANCIA DE LLAMARSE ERNESTO"
OSTIRALETIK IGANDERA: 7,45
ASTELEHENETIK OSTEGUNERA: 8
"LA VIDA ES UN MILAGRO"
OSTIRALETIK IGANDERA: 5-7,45-10,30
ASTELEHENETIK OSTEGUNERA: 5,30-8,30
"LOS CHICOS DEL CORO"
OSTIRALETIK IGANDERA: 5-7,45-10,30
ASTELEHENETIK OSTEGUNERA: 5,30-8-10,30
"SOLO UN BESO"
ASTELEHENETIK IGANDERA: 5,30-8-10,30
"LA MEMORIA DE LOS MUERTOS"
ASTELEHENETIK IGANDERA: 5,30-8-10,30
"CONVERSACIONES CON MAMA"
ASTELEHENETIK IGANDERA: 5,30-8-10,30

zinea

Kultur Agenda

URTARRILAK 28 Ostirala
MUSIKA: Udalaren Folklore Akademia
19:30. Villasuso Jauregia
URTARRILAK 29 Larunbata
PAILAZOAK: Korri, Xalto ta Brinko
18:30. Falerina loralegia
FLAMENKOA: La Cañeta de Málaga
20:30 Jesús Ibáñez de Matauco Antzokia (Hegoalde Gizarte Etxea)
MUSIKA: Zenit + VKR
Gauean. Azkena Gasteiz Aretoa (Andre Maria Zuriaren Koroatzearen kalea)
OTSAILAK 1 Asteartea
MUSIKA: Euskadiko Orkestra Sinfonikoa
20:00. Printzipal Antzokia
OTSAILAK 3 Osteguna
MUSIKA: Madredeus
20:30. Printzipal Antzokia

kultura

Elurra bai, baina joateko zail

Pirinioetara eta Errioxa aldera joateko zailtasunak izango dira

XABIER URTZELAI

Ibarretik ehunka lagun joaten dira astebururo Pirinioetako eski estazioetara. Errioxako Valdezcaray estazioak ere gero eta bisitari gehiago ditu. Elur gutxirekin egon dira orain arte; baina egun gutxian erabat aldatu da estazioen egoera.

Joan den astean eski estazio gehienak elur beharrean zeuden, eta azken egunotan nahiko lan izan dute langileek, bota duen elur guztia zapaldu eta estazioak txukuntzen. Orain, arazoa bestelakoa da. Lehen ez zegoen elurrik, eta orain larregi, zailtasunak daudeeta eski estazioetara joateko. Elurrak baino gehiago, arazo horiek izotzak sortu ditu; egunotan ibarretik irteteko ere auto gidariek nahiko komeria izan dituzte.

GURA BESTE ELUR ERRIOXAN

Errioxako Valdezcaray eski estazioa adibide hartuta, joan den asteburuan 20 zentimetro eta 50 zentimetro arteko elur geruza zegoen. Elurraren kalitatea ezin eskasagoa zen, eta elur kanoiei esker lortzen zuten pistak, behintzat, zuri egotea. Astean zehar bota duen elurrari esker, baina, 60 eta 140 zentimetroko elur lodiera dago. Egin duen eguraldi txarraren ondorioz, hainbat pista itxita izan dituzte, baina eguraldiak hobera egiten duen momentuan, estazio txikiak bere aurpegi politena erakutsiko du. Hori bai, kateak behar dira Ezcaraytik gora.
